

# BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezeroen lehen harremana gure aplikazioarekin automatizatu izango da, aplikazioaren azalpen guztiak web-gunean edo aplikazioan bertan aurkitzen direlako. Bezeroak zalantzak argitzeko edota informazio zehatzagorako zerbitzu personalizatu, bezeroen arretarako izango dute web-guneko beheko partean telefono zenbakia edota email-a. Web-gunea 3 hizkuntzatan aurkitu daiteke: gaztelaniaz, euskeraz eta ingelesez. Bestalde, web-gune barruan erreklamazio-sistema aurkituko da, hau da, kutxatila batean bezeroaren kexa edo eskaera ipintzeko.

Aplikazioa euki eta gero, hiltetero deituko ditugu gure bezeroak aplikazioen berriak emateko, hau da, beherapenak, erregaien hobekuntza eta ezaugarriak... Bezeroari deitzean, galdetuko zaio zein hizkuntzatan entzun edo hitz egin nahiko duten.

Zenbat eta gehiago erabiltzen duen appa bezeroak, orduan eta beherapen gehiago izango ditu gure zernitzuan; hau da, bezeroak gutxienez 20 aldiz erabiltzen badu 4 hilabeteen barnean, %30 ko beherapena jasoko du hurrengo bi hilabeteetan.

Bestalde, lehen aipatutako telefono zenbakira deituta, gure bezeroek zerbitzu guztiz pertsonalizatua jasoko dute, haien zalantzak, galderak eta beharrak argitzeko eta asetzeko.

Azkenik, urtean zehar hainbat zozketa egongo dira. Urteko lehena martxo osoan zehar egongo da zozketan izena emateko eta urtearen arabera aste santuaren lehengo egunean jakingo da zozketaren irabazlea.

Bigarrena, uda hasi baino lehenago egingo da. Uztailaren 1ean irabazlearen izena agertuko da webgunean eta izena ematea ekainan zehar egingo da.

Azken zozketa abendua hasi eta gero egingo da. Zozketa hau 24an bukatuko da, eta berriro ere, irabazlearen izena webgunean agertuko da 25ean. Aste santuko eta udako zozketen sariak bidaiak izango dira eta urtearen arabera bidaiaren norakoa aldatuko da; hau da, ez da izango beti leku berbera, adibidez, bidaiaria bat Parisera izango da, beste bat Dubaira...

Azkenik, gabonetako zozketaren saria zesta handi bat izango da; urdailazpikoa, bonboiak, ardoa, turroia,... “Lotes de España” eskaintzen duen zesta, hain zuzen ere, Gabonetako zesta gourmet 506, 55,41€-tan baloratuta Zozketa hauek, noski, bezeroei zuzenduta egongo da.